

BIZITEGI ERAIKINA
D MAILA**PRIM 38****Egilea eta data: Manuel Echave; 1906****Deskribapena**

Mehelin arteko eraikina, jatorriz behe oina eta lau goi oin dituen, gehi 1946ko bi jasodura, bata atzeraemana eta bestea txapitulak dituen estalkipe mantsardatu gisa (lehen jatorrizko estalkipearen ordezte edo berritze gisa). Harlanduzko fatxada banda horizontaletan, erliebea osatuz. Alboetako ertzetan zurezko begiratokiak ditu. Konposizio simetrikoa, atariko baoaren konfigurazioak nabarmenduta, baita erlaitzean frontoi batek errematatzen duen fatxadako modulu zentralak ere. Behe oineko bao bikoitzetan, proiektuko metalezko mainela harrizko mainel batekin ordeztu zen. Proiektu komuna Prim 36rekin.

Babes erregimena

1.- Erregimen orokorra.

Plan Berezi honen D babes mailan integratzearekin loturikoa.

Testuinguru horretan, fatxadaren tratamendua, bertako baoen konfigurazioa, instalazio, publizitate elementu, seinale eta eguzki oihal, eta abarren ezarpena plan berezi honetako ordenantza orokorretan ezarritako babes maila hori arautzen duten irizpideetara egokituko dira.

2.- Berariazko erregimena.

A.- Babesetik kanpo utzitako elementuak edo zatiak: jasodurak (5. eta 6. goi oinak).

B.- Fatxadako elementu edo zati iraunkorrak: harlanduzko elementuak; begiratokiak.

C.- Esku hartzeko beste irizpide zehatz batzuk:

- * Begiratokiaren tratamendua ordenantza orokor horietan ezarritako irizpideetara egokituko da.
- * Erregimen orokor hori arautzeko gainerako baldintzak betetzeari loturikoak, hala badagokio.